

BETERRI-AIZTONDOKO ALDIZKARIA



AIURRI

1997ko uztailearen 24a. 63. Zenbakia. 150 pezeta.


O
P
O
R
R
E
T
A
N



U
D
A
L
E
K
U
E
T
A
R
A




**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



AITZBELTZ

Arteta Kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxa: 30 03 45
ANDOAIN

Santio Jaiak 1997



ongi pasa!

Cafeteria
Chocolateria

C/. Mayor, 12 - Tel. 69 24 86
BILLABONA

P U B

TIF. 69 01 92

Antxin katea, 2

B I L L A B O N A

· U · P · A · I ·

KALE NAGUSIA, 32
VILLABONA
☎ - 692521

P · U · B

Jai hauetan martxa nahi baduzu,
zatoz Kai tabernara

Tabernari berriak Santio Jaietan
uztailaren 20tik 30 bitartean
Nagusia, 40 - Billabona


JOE BAR

Santio jaiak ondo
igaro itzazue
Antxin 1, BILLABONA
☎ 69 31 54

1. **AURKIBIDEA**
AIURRITARRAK
Jon Unanue
"Txirrinduarien egia".
2. **TXAPELA ETA MAKILA**
3. **LARRAUL**
Herriko dantzariak.
- 4-5-6. **ANDOAIN**
Udala Miguel Angel Blancoren
hilketaren aurka.
Andoain festarik festa.
7. **ASTEASU**
Ernioko gurutzearen 50. urteurrena.
- 8-9. **BILLABONA**
Herriko lanak.
Amabilia euskara taldea indarberritua.
10. **ZIZURKIL**
Zizurkil goiko jaiak.
11. **BASERRIA**
Esnearen kalitatea neurtzeko arau berria.
- 12-13. **ERREPORTAIA**
Udalekuak. hezituz disfrutatzen lekuak.
- 14-15. **ELKARRIZKETA**
Oporrak pasatzeko era ezberdinak.
- 16-17. **KIROLA**
Xabier Bitoria eta Jon Barrondo pilotariak.
18. **ERRETRATU ZAHARRA**
19. **BETERRIKO LIBURUA/LEHIAKETA**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiarzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oiarzabal eta Ainhoa Aiarza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Filmaketa eta inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). Legegordailua: SS-202/94
ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 2.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



TXIRRINDUAREN EGIA




JON UNANUE

Ez gero pentsa erraza gertatzen zaidanik aitortzea. 1.972. urteko, edo 73.eko, Tourrean izan zen, Tourmalet edo Aubisqueko igoeran txirrindulari guztiak aldapan gora zetozela Merckx handia buru, eta minutu askoz geroago atzetik, leherre-
nak eginda Perurena, eta oraindik atzerago Lasa, KAS-eko mailota blai-blai eginda. Ni artean multikoa nintzen, umemokoa, eta Perurena hain atzean ikusteak batere pozik eman ez zidanez. Migel Mari Lasa aldean nuenean "alperra" deitu nion, barru-barutik aterata. Gogoratze hutsak korapiloa egiten dit, ezlarrian batzuetan, urdailean besteetan... eta ondo potoloa. Lasak bota zidan begiratua ez dut sekulan ahaztuko, ezta Josekruz, gure aitaren adiskide mina, besoa gora jaso eta kriston belarrondokoa emateko puntuan egon zela ere... Baina onik atera nintzen trantze hartatik, fisikoki onik esan nahi dut, ze buruan izan dut geroztik, zokorik zoko, pasadizo hura.

Nik esango nuke guri txikitandik eskolan sartu zigutela burmuinean euskaldunak halako kasta berezia izatearena, berebiziko ahalmena zuen kasta alegia, apostu, dema, leiha eta erronka guztietan garraile eta onik ateratzeko. Gogoan ditut, esate baterako, "Giza-soina" liburuko kontakizunetako apostu haiek, eta gure mitologiako Tartalo, Basajaun eta tankera berekoekin izandako erronketan eta beste pasadizo batzuetan ere erraz frogatzen liteke. Ez da, jakina, hutsik gure herriaren jokabidea izan, baina beldur naiz besteek bezain beste erabiltzeaz gain ez ote gataizkien behar baino gehiago atxekitu. Gainera, Arronakoa ere orduantxe generabilen, Europan barrena muturrekoak banatzeko. Eta gauzak orokorrago hartuta, euskaldunak Francoren menpeko ginen Goigoikoak nahi zuelako, "Noiz arte Jau-na behar gaituzu makilapean itozten?..." kantatuz maiztxo gogorazten genion bezala... Nola bada gure ziklistak azken putz? Ordurako nekienaz, irakasten ahalegindu zirenaz eta ikasten asmatu nuenaz, izan al nezakeen beste burutaziorik gure ziklistak Merckx eta Van Imperekin buruz buru igotzen ikustea baino?

Zakarkeria hura entzunda, ondo merezita nuen, noski, Lasa txirrindutik apeatu eta ni tresnaren gainean jarrita atzetik akuilukada zorrotzekin hastea bizikleta hartan portua igo edo leherrenak egin arte, eta, bide batez, Jose Kruzek eragin zuen beso-esku haren indarra belarrondoan asetzea. Halako jokabiderik ez lukete oraingo pedagogoen ontzat joko, baina niri mesede egingo zidan ziurrenik barrua lasaigo utzita, eta errealtatean zein zen erakutsita. Inoiz lerro hauek kausitu eta irakurtzera, barkazioa eskatu nahi nioke Migel Mariiri, zakarkeria hura gogoan baldin badauka behinik behin, ez bainago dagoeneko eskarmentua hartzearen bizikleta gainean jartzeko tenorean.

Geroztik Indurain handia gure artean izan dugun arren, bizitzak ezagupideak eman dizkit -Tourreko hura eta herri honek eragindako beste batzuk-, ulertu ahal izateko horrek ere ez gaituela gaur jarri gure eskola garaiko uste, irudipen eta sinismen haien pareko. Ezta gutxiagorik ere.



Guk, zuen iritzia, kezak eta proposamenak jaso nahian, **Txapela eta Makila** izeneko atal berria gehitu diogu aldizkariari. Gauzak horrela, zerbait txalotu nahi izanez gero, adibidez, bidal ezazue **Txapela** izeneko atalera zuen iritzia.

Hori bai, zuen izen-abizenak (inizialak bestela) eta herriaren izena ere argitaratuko dugu. Zerbait kritikatu nahi izanez gero, ordea, gauza bera egin behar duzue

baina iritzia **Makila** izeneko atalera bidali behar duzue. Guk, aipatzen duzuen gaiari buruzko argazkia ere argitaratuko dugu. Ah! eta lasai egon, **Galdezka** atala ez baitugu kendu.

Zuen iritzirik ez dugunean gu irtengo gara kalera iritzi bila, orain artean bezalaxe. Beraz, animatu zaitezte ondo dagoenari txapela jartzen eta gaizki dagoenari makilarekin jotzen!



TXAPELA

Eskerrak eman nahi dizkiegu gure aldizkariaren harpidedun egin diren lagun guztiei. Eskerrik asko Aiurrik behar dituen diru-sarrerak gehitzen laguntzeagatik, eta nola ez, aldizkaria irakurtzen jarraitzeko erakutsi duzuen borondateagatik. Lanean jarraitzeko indarra ematen digu horrek, eta nola ez, herritarrekin ahalik eta harreman estuenak edukitzeko konpromezua hartzen dugu ondorioz. Eskerrik asko.

Aiurri aldizkariako erredakzio taldea



MAKILA

Asteasun oraingoan ere makilkada jaso beharrean gaude. Kalean zehar ibiltzen naizen bakoitzean lotsa da sentitzen dudana: paperak, plastikozko boltsak, pipa azalak... denetik topatu daiteke, eta aldiz zakarrontziak hutsik. Ea zakarrontziei beren zeregina egiten laguntzen diegun.

J.A.A. (Asteasu)



VAC
VAC


HOL-ATZ

VACSOL - WR[®] TRATAMENDUA EGURRARENTZAT



**PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA**

Elbarrena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA



ALTZARIAK

Eskaintza bereziak!!

KHUNSA, DEAN - TEL. 6002 DEANDEAN

HERRIKO DANTZARIAK

Miren, Ane, Arantxa, Alaitz eta Uxue dira Larraulgo bost neska dantzariak. Nerea Ugaldek erakusten die fandangoa eta arin-arina dantzatzen, baita agurra ere. Bi urte dira astero astero dantzak entsaiatzeko elkartzen direla, eta Nereak argi esan digun bezala "kanpora irten gabe herrian bertan duten aktibitate bat da dantza ikastaroa".

-Zein dantza ikasi dituzte dagoeneko?

-Fandangoa, arin-arina eta agurra dantzatzen ikasi dute. Izan ere, 5 neska dira bakarrik, eta dantza horiek baino ezin ditugu egin. Taldeka egiten diren dantzak egitea ezinezkoa zaigu.

-Non ikasi duzu zuk dantza egiten?

-Asteasuko eta Billabonako dantza taldeetan ibili izan naiz, baina urteak dira dantza talde horietan parte hartzen ez dudala. Hala ere, haurrek beraiek eskatuta hasi ginen dantza ikastaroa ematen, eta haurrei erakusteko nahikoa banekielako hasi nintzen ni neu zeregin horretan.

-Asko entsaiatzen al duzue?

-Larunbat arratsaldeetan entsaiatzen dugu, bi orduko entsaioak izaten dira. Baina bi orduak ez ditugu dantza egiten pasatzen, dantza piska bat egin eta beste piska batean jolasten aritzen gara. Haurrek herrian bertan duten aktibitate bat da dantza ikastaroa; guk izan ez genuen bezala, Larrauldik beste inora irten gabe dantza ikasteko eta elkarren artean jolasteko aukera dute haur larrauldarrek.



San Esteban jaiak

E G I T A R A U A

ABUZTUAK 1, OSTIRALA:

22:00: Txupinazoa jaiei hasiera emateko
23:00: Trikitixa goizaldera arte

ABUZTUAK 2, LARUNBATA:

16:00: Antzerkia gaztetzontzat
21:00: Herri afaria
00:00: EGAN BERRIA taldearekin dantzaldia
Goizaldera: Txokolatada

ABUZTUAK 3, IGANDEA (ESTEBAN DEUNAREN EGUNA):

11:00: Herri meza
12:00: Herriko zaharrentzat hamaiketako
Ondoren: Ume jolasak eta trikitixa
17:00: VI. Mus Txapelketa
19:30: Bertso jaialdia. Bertsolariak: S. Lizaso, A.M. Peñagarikano, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio. Gai jartzailea: Iñaxio Usarralde
22:30: AKELARRE taldearekin dantzaldia

San Bartolome jaiak

E G I T A R A U A

ABUZTUAK 24, IGANDEA (BARTOLOME DEUNAREN EGUNA):

11:00: Herri meza
Ondoren: Ahari jokoak eta herriko gazteekin trikitixa
20:00: Larraulgo ROCK&ROLL BAND taldearekin dantzaldia



ALBA
aseguroak

• Aseguru orokorrak, bereziki autoak. % 50a bitarteko beherapenak onartzen ditugu.

Hilero auto baten asegurua zozketatzen dugu!

Pío Baroja, z/g behea. 20140 ANDOAIN
Fax eta Tel. 943-30 06 08 Pos. Ku. 111. 20150 Billabona

• GAZTE AKANPADA BERTXINEN

Herriko 30-40 gazte inguru bildu ziren Bertxinen uztaileko bigarren asteburua pasatzeko eta hainbat ekintza antolatzeko. Hiru egunetan zehar antzerkia, mahainguruak, kantaldia, mendi irteera eta erromerian parte hartzeko aukera izan zuten bertara hurbildu ziren gazteek.

• SQUASH TXAPELKETA

Kazkabeltza taldeak antolatutako squash txapelkera finala jokatu berria da Andoaingo Allurralde kiroldegian. 17 jokalaririk lehiatu ziren txapelketan eta lehen postuetan honako hauek geratu ziren:

- 1- Joxe Martin Arregi
- 2- Iñigo Aguirre
- 3- Rafa Hurtado
- 4- Iñaki Oyarzun
- 5- Koldo Armendariz
- 6- Gurutz Letamendi

• KIROLDEGIKO EGUTEGIA

Uztail eta abuztuaren kiroldegiko ordutegia honako hau izango da: Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik 13:00etara, eta arratsaldeko 16:00etatik 21:00etara. Larunbatetan berriz, 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Igande eta jai egunetan itxita egongo da. Horrez gain, udako oporrak direla eta, Andoaingo Allurralde kiroldegia abuztuaren 17tik 31ra bitartean itxita egongo da.

• TALDE KULTURALENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlearitzako eta Udaleko erregistroan izena emanda duten elkarte eta taldeek dirulaguntzak jasotzeko aukera izango dute. Horretarako, aurreko urteko aktibitateen memoria eta diru sarreraren eta gastuen berri eman beharko dute. Eskerak udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira abuztuaren 1a baino lehenago.

UDALA MIGUEL ANGEL BLANCO GARRIDOREN HILKETAREN AURKA

Aparteko udalbatzarrak eta konzentrazioak egin dira herrian



Herritar ugari hartu zuen parte konzentrazioetan. Argazkia: J. I. Unanue

ETAK Miguel Angel Garrido bahitu zuen hilaren 10ean, ostegunean, eta Espainiako Gobernuari euskal presoak Euskal Herriratzea eskatu zion. Gobernuak hori betetzen ez bazuen Ermuko PPko zinegotzi zen Miguel Angel Blanco hil egingo zuela esan zuen ETak. Gauzak horrela, zinegotzia bahitu eta 48 ordura hil egin zuen. Hori dela eta, EAJ-PNV, PSE-EE, EA, IU-EB eta PPko udal alderdi politikoek zortzi puntuko mozioa aurkeztu zuten M. Angel Blanco Garrido bahitu eta hurrengo egunean Andoaingo Udalbatzarrean. Mozioan ETari Miguel Angel Garrido berehala eta inolako baldintzarik gabe aske uztea, bere familiari laguntza ematea eta ETaren bortxakeria alferrikakoa zela adierazi zuten. Horrez gain,

egun berean bost minutuko geraldia egin zuten eta hurrengo egunean, berriz, manifestazioa. Larunbatean, ordea, Miguel Angel Garrido buruan bi tiro zituela agertu zen Lasarteko zelai batean. Horren ondorioz, igandean, milaka pertsonak hartu zuen parte Andoaingo kaleetan zehar egin zen manifestaldian. Astelehenean, berriz, aparteko eta presazko udalbatza elkar-tu zen berriro. Ajuria Eneko idatzia-rekin bat egin eta EAJ-PNV, EA, PSE-EE, IU-EB eta PPko alderdi politikoek nola herritar askok ordubete-ko paroa egin zuten udaltxe aurrean. Herriko industria eta komertzio askok ere itxi egin zituzten beren ateak. Arratsaldean, Miguel Angel Garrido-ren heriotza salatuzko beste konzentrazio batean bildu ziren herritarrak.

• ANDOAINDAR ARBITRO BAT FUTBOL LIGAKO LEHENENGO MAILAN

Orain arte, Miguel Angel Pérez andoaindarrak futboleko bigarren mailako arbitro gisa jardun du. 97-98 denboraldian berriz, lehenengo mailako futbol partiduetan ikusi ahal izango dugu bere lanean. Zorionak Miguel Angel!

• ARRATE FRONTOIKO LANAK

Arrate frontoia egin zenetik (1977. urtetik) ez dute berritzeko lanik egin. Aurten, ordea, Etxaide enpresak frontoiko estalkia eta fatxada berritzeko lanak egin ditu. Berritze lan horien kostua 11.000.000 pezeta ingurukoa izan da.

FESTAZ FESTA

Uztail eta abuztuan herriko auzo ugarian izango dira festak. Etxeberrieta, Goiburu, Buruntza eta Sorabillako auzoetan ez da musika eta giro ona faltako. Etxeberrieta auzoko festek, gainera, ehun urte beteko dituzte aurten. Hona hemen festa horietatik azpimarratu ditugun ekintzak:

Etxeberrieta auzoko jaiak

UZTAILAK 25, ostirala

- 11:00etan: Txupinazoa
- 19:00etan: TUTIK ERE pailazoak: Gary, Montxo eta Joxe Lontxo
- 20:30etan: Poniak eta Tortila Patata txapelketa (etxean egindakoak)
- 22:00etan: Jazz-a
- 23:00etan: Dantzaldia "SIRIMIRI" taldearekin

Oharra: 11:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara Haur parkea izango da

UZTAILAK 26, larunbata

- 11:00etan: Futbol partidua: Etxeberrieta-Baleo Jan
- 16:00etan: Txirrindulari "Criterium"-a
- 17:00etan: Mus txapelketa "Ikatz" tabernan
- 19:00etan: "Guiñol" antzerkia
Ondoren: Sardinada
- 23:00etan: Dantzaldia "AGIRREN" taldearekin

UZTAILAK 27, igandea


- 9:30etan: Mountain Bike zirkuitua
- 17:00etan: Tute txapelketa "Alfaro" erretegian
Ondoren: Toka txapelketa "Alfaro" erretegian
- 18:00etan: Lasarte-Oriako "Erketz" dantza taldearen emanaldia
- 19:30etan: Herri kirolak
- 23:00etan: "Alma Navarra"

UZTAILAK 30, azteazkena

- 18:00etan: Haur jolasak, ginkana, poniak, txokolatada,
- 20:00etan: Txaranga, txalaparta eta patata zuritze txapelketa
- 22:00etan: Auzoko danborrada
- 23:00etan: Dantzaldia "AGIRREN" taldearekin

UZTAILAK 31, osteguna

- 10:30etan: Kalejira
- 11:00etan: Meza Gurutze Santuarean Elizan "ALBERTO AGIRRE" abesbatzarekin
- 14:00etan: Auzokoen bazkaria
Ondoren: Aiton-amonei omenaldia
- 21:30etan: Dantzaldia "SIRIMIRI" taldearekin



Leizaran, Markozketa Tailerra S.L. - Kaleberria, 40 - 20140 Andoain - Tel. 59 33 39 - Fax. 30 01 57

 **LEIZARAN**
MARKOZKETA TAILERRA S.L.

Kaleberria, 40
20140 ANDOAIN
TEL.: 59 33 39
FAX. 30 01 57

OLEOAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK

TRANBURU
agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALAK GARA

Kaleberria, 26 behe
☎ 59 08 14
Fax-a: 59 24 03
ANDOAIN

winterthur

FESTAZ FESTA

San Roke Deuna

Goiburuko jaiak

ABUZTUAK 1, ostirala

20:00etan: Txupinazoa eta kanpaiak
21:00etan: Auzo bazkaria bertsolari. txiste kontalari eta trikitilariak giroturik
Ondoren: Dantzaldia MUSUTRUK dantza taldearekin

ABUZTUAK 2, larunbata

5:00etan: Oilasko bilketa
Eguerdian: Oilasko biltzaileen etorrerarekin batera salda, trikitilariak lagundurik
13:30etan: Oilasko jokua
18:30etan: TRIAL SIN. Partehartzaileak: Mikel Iñorbe (Leitz) 1993ko munduko txapeldun ordea eta Euskadiko txapelketan punta-puntan dabilzan gazteak
21:00etan: Oilasko jokuan ibili direnen afaria
23:30etan: Kontzertua TAPIA TA LETURIA BAND taldearen eskutik
Ondoren: Dantzaldia ETZAKIT taldearekin

ABUZTUAK 3, Esteban Deunaren eguna

12:00etan: Meza Nagusia
Ondoren: Trikitixa LAJA eta LANDAKAN-DAREkin
Jarraian: SOROZABAL eta TELLERIA bertsolarien lehen saioa
14:30etan: Zaharren bazkaria
17:00etan: Herri kirolak bertako gazteen artean
19:00etan: Sagardo dastaketa trikitilariak giroturik: Aburuza, Zabala, Satxota, Sarasola, Buenabentura, Eizmendia, Txertota, Otsuaenea, Gaztañaga eta Aginaga sagardotegiak izango dira bertan
Ondoren: Bertsolarien bigarren saioa
22:30etan: LAJA eta LANDAKANDA trikitilariak aurtengo jaietako amaiera emango die.

Urtero bezala, San Roke eguna ospatuz herriar asko izango dira Buruntza mendira igo eta festa giroan eguna pasatzen dutenak. Aurten, hiru egunetan zehar, ez da trikitilari eta bertsolarien doinurik faltako.

ABUZTUAK 15, Haurren eguna

12:30etan: Jaien hasiera. Haur jokuak, bazkaria, txokolatada... Berrozpe ikastetxean

ABUZTUAK 16, San Roke eguna

11:30etan: Meza auzoko hildakoen alde eta Santuaren prozesioa
Ondoren: Olasto eta Loidisaletxe bertsolariak, Letamendia eta Lasa trikitilariak, dantzariak eta txalaparta
* Pintxoak eta edariak salgai izango dira
Eguerdian: Auzo bazkaria
Ilunabarrean: gazteen jaitsiera, trikitilarien laguntzarekin

ABUZTUAK 23, Oilasko eguna

6:00etan: Buruntza auzoan zehar oilasko bilketa.
Eguerdian: Oilasko jokua
21:00etan: IV Bertso afaria. Bertsolariak: Mendiluze eta Peñagarikano. Trikitilariak: Jon, Aitzol eta Aroa
* Bertso afarirako txartelak mugatuak direnez, eskuratu ezazu zurea ahalik eta azkarren!

Oharra: Buruntza auzoko edota festen inguruko argazki zaharren bilketari ekin diote auzoko festa batzordeko gazteek. Auzotarren edota herritarren parte hartzea eskatzen dute. Informazio gehiagorako deitu 590728 (Nerea) edota 300518 (Ainhoa) telefono zenbakietara.

STOP

LIBURUDENDA

TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelese, frantsesez,
italieraz...)

Agustin Leitz 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

SANATSA

BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Kale Nagusia, 28 - Tfnoa.: 69 40 63 -Billabona


ERNIOKO GURUTZEAREN 50. URTEURRENA

Abuztuaren 30ean eta 31n izango dira ospakizunak

Bukatu dituzte Ernioko gurutzea, orientazio mahaia eta aterpea konpontzeko lanak. Ernio inguruko bederatzi herrietako gazteek egin dituzte lanak, eta lanak txukun egiteaz

gain, lagunarteko giroa izan dute euren artean. Orain, duela berrogeita hamar urte gurutzea egin zutenei omenaldia eta festa antolatze lanetan ari dira burubelarri.

Gurutzearen hausturak konpontzea eta gurutzea bera margotzea, tximistorratza jartzea, orientazio mahaia txukuntzea eta aterpe berria eraikitzea izan dira maiatza eta ekaina bitartean burutu dituzten lanak. Aterpea berreraiki egin dute, eta bertan eserlekuak eta lehio berriak egin dituzte. Aterik ez diote jarri, baina abereak ez sartzeko moduan egin dute sarrera. Erniozaleak elkarteko lagunek egin dituzte lanak, eta larunbatero-larunbatero igo dira Erniora lan egitera. Lanik zailena soberan zuten materiala jaistea izan dela esan digute, materiala helikopteroz igo arren, jaitsi ez baitute modu berean egin. Hogei-hogeita hamar lagun aritu dira lanean, eta lagunarte aparta osatu dute lan egiteaz gain.



Omenaldi egunean eguraldi ona egitea espero dute.

JOXE IZAGIRRE, DUELA 50 URTE ERNIOKO GURUTZEA EGIN ZUEN HERRITARRA

“Aiako Jesus San Sebastian apaizaren ideia izan zen Ernioko gurutzea egitea. Asteasuko apaiza izan zen, eta berak elkartu gintuen Asteasuko eta Aiako gazte ezkongabeak, Luistarrak, gurutzea egiteko. Kalbariotako gurutzeak baino beranduago egin genuen gurutze nagusia, horiek baino berriagoa da. Aldamioak egiteko nahikoa lan izan genuen gurutzea baino pago-enbor handiagoak bilatzen! Gogotik egin genuen lan bi herrietako gazteek. Domingo Usandizagak egin zuen gurutzearen oinarria jartzeko zuloa, eta Manuel Seguro-laren makina erabiltzen genuen masa egiteko. Masa horrekin egin genuen gurutzea. Bazkaria, berriz, baba eta zezina, Errezilgo Antoniok ekartzen zigun. Hala ere, aipatzekoa da gurutzea bere lurretan egiteko baimenik ez zue-

ERNIOZALEAK ELKARTEAREN ASMOAK

Erniozaleak elkarte berriko lagunek, hots, Ernio inguruko bederatzi herrietako hainbat lagunek, asmo ugari dituzte aurrera begira: alde batetik, herri bakoitzerik Ernio mendiraino igotzen diren bideak seinalizatu nahi dituzte; bestetik, mendizaletasuna bulzatu nahi dute; eta gainera, herriko kultura eta ohiturak ezagutarazi nahi dituzte.

la eman Errezilek, ondorioz, Albizturko lurretan egin genuen gurutzea. Orain konpondu duten bordan limonada ugari edandakoak gara gu, badut borda berria ikusteko gogo! Ea omenaldi egunean Zelaturaino behinik behin igotzen naizen”.

Jaialdia Zelatunen

ABUZTUAK 30, larunbata

11:30: Meza

Ondoren: Duela 50 urte gurutzea egin zutenei omenaldia eta bazkaria
Bertsolariak
Laja eta Landakan-da trikitilariak

ABUZTUAK 31, igandea

11:30: Meza

12:30: Trikitilariak (egun osoan zehar)
13:30: Bertsolariak
16:00: Herri kirolak: Aizkolariak, trontzolariak, harrijosatzailak eta sokatira

Ondoren: Dantzariak
17:00: Bertsolariak
17:30: Tritikixa


• JOXE LIZASO EPAITU EGIN DUTE

Madrilgo Entzutegi Nazionalean epaitu dute Joxe Lizaso asteasuarra hilaren 22an. Jon Tapia zizurkildarrrak testigu moduan deklaratu zuen epaiketa berean. Joxe duela lau urte atxilotu zuten Baionan, eta Santeko espetxean egon ostean, egun, Carabanchelgo espetxean dago.



HERRIKO LANAK

Herriko jaietan inoiz baino politagoa eta txukunagoa izango dugu Billabona. Ordurako amaitu nahi dituzte, eguraldiak laguntzen badu behinik behin, frontoia margotzeko lanak, Larrea urbanizatzeko lanak, eta besteak beste, herriko jolas parkeak.



Frontoia margotzen.

Kolore arrosaz margotu dute plazako frontoia. Frontoia margotu aurretik, ordea, frontoiaren paretetan zeuden pitzadurak eta beste zenbait haustura konpondu dituzte.

Frontoiaz gain, herriko eserlekuak ere konpondu eta margotu dituzte.

LARREA URBANIZATZEN

Larreko urbanizazioa, hots, kotxe zirkulazioa geldotzeko errotonda eta pasealeku berriaren lanak, nahikoa poliki ari dira egiten. Jaietarako lan guztiak bukatu ez arren, lanak ahalik eta aurreratuenak utziko dituztela esan digute udaletxean.

JOLAS PARKE BERRIAK

Fleming eskolako jolas parkea, Txermin auzokoa eta Etxeondokoa goitik behera berrituko dituzte. Egungo jolas parkeak zaharkituak daude eta, orain, haurrek jolasean gusturago eta segururago ibiltzeko parke berriak egingo dituzte. Parkearen zoruan, haurrek minik ez hartzeko, gomazko plataformak jarriko dituzte. Jolastokiak berriz, egurrezkoak izango dira.

• ZERBEZA FERIA

Jende asko ibili da aurreko asteburuan Billabonan. Izan ere, feri orijinala, zerbeza feria hain zuzen, antolatu dute Irrintzi elkarteko lagunek Txermingo ikastolapean. Belgika, Alemania, Ingalaterra eta besteak beste, Frantziako 8 zerbeza klase dastatzeko aukera ezinhobea izan dute bertara hurbildu direnek. Zerbeza edateaz gain, Alemanian jan ohi duten menua prestatu dute elkarteko lagunek. Lan asko egin dute antolatzaileek 500 m2ko zerbeza feria antolatzen eta egunero bertara etortzen zen jendeari zerbitzatzen. Hala ere, gustura egin duten lana izan da, eta ziurrenik, datozen urteetan izango du errepikapenik.

**LERTXUNDI
HARATEGIA**



Alkorta-enea etxea - ☎ 69 18 76
Zizurkil


Gema

Lorategia

LORATEGIEN MANTENIMENDUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK

Kale nagusia, 30 ☎ 69 28 98 - Billabona

Zabala
Ordukari Bitxitegia



RACER

LOTUS

TISSOT

SEIKO

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

**GOROSTI
HERBORISTERIA**

- ✓ DIETISTA
- ✓ BARATZAKO
- FRUITU NATURALAK
- ✓ INTSENTSUA
- ✓ KANDELAK

Txermin kalea 13, behea
☎ 69 20 56
Billabona

«AMABILA»
EUSKARA TALDEA
INDARBERRITUTA

**Santioetan ekintza ugari
gingo dituzte euskararen
presentzia areagotzeko**

Amabila euskara taldearen dinamika nahikoa apala zen azken denboraldi honetan. Gauzak horrela, eta euskaren erabilpen eskasak kezkatuta, zazpi neska elkartu dira euskararen presentzia areagotzeko eta erakunde zabal zein publikoek euskaldunen eskubidea errespetatzeko eskatzeko: euskaraz jardun ahal izatea, alegia. Oraingoaz, gaur bertan hasiko diren Santioetan burutuko dituzten ekintzak antolatu dituzte.

Maitasun gutunen lehiaketa zen Amabila euskara taldeak azkenaldian antolatzen zuen gauza bakarrenetakoa: "gauza sinbolikoak egiten genituen", esan digute Amabilako lagunek. Beraz, eta euskararen gaia serioago lantzeko, bilera ireki bat egin zuten Amabila euskara taldearen funtsaz eta jarraitu beharreko dinamika berriaz hitz egiteko. Zazpi neska elkartu ziren bileran, horietako bi lehenagotik ere taldeko partaide zirenak. Bilera egin eta berehala ekin zioten lanari.

SANTIOETAN EUSKARAZ!

Santioetan euskararen gaia tratatzen duen parodia bat egiteko asmoa dute. Era berean, eta taberna nola barraketan euskal musika jartzeko, Euskal Herriko musika taldeen abestiekin zinta bat grabatu dute jaietan musika jarriko duten guztiei emateko. Gainera, herrian zehar jarriko dituzten pankartek, pegatinek eta kamisetek euskararen erabilpenaren garrantziaz ohartaraziko digute, ezbairik gabe. Azkenik, udalarekin harremanak euskaraz izatea eskatu zuten herritarrei euskarazko jai-egitaraua soilik bidaltzea eskatu diote udalari.

EUSKALDUNEN ESKUBIDEAK ERRESPETATU

Behin jaiak igarota, udalarekin harremanak euskaraz izatea eskatu zuten herritarrei eskaera hori errespetatzeko egingo dute lan. Hori dela eta, herritar horien datuak informatizatu egingo dituzte. Ildo beretik, erakunde publikoekin eta elkarte ezberdinekin izango dira herritarrekin harremanak euskaraz izatea eskatzeko.



Jaietan egingo dituzte lehen ekintzak.

**DROGAMENPEKOTASUNARI
AURRE EGITEN**

Hil honetan azaldu dute Udaleko Ongizate saileko arduradunek eta Eusko Jaularitzako Drogamenpekotasun saileko kideek duela bi urte Billabonan hasitako egitasmoa. Drogamenpekotasun arazoak zituzten 10 herritarrek hartu dute parte egitasmo horretan, horietako bi Zizurkilgoak. Herritar hauek egunero behar zuten drogaren ordez metadona jaso dute herriko Osasun Zerbitzuan; ondorioz, droga piskanaka-piskanaka joan dira uzten. Bien bitartean, bergizarteratzeko pausuak eman dituzte ikastaro eta lan ezberdinak eginaz. Egitasmo luzea eta zaila izan da, baina orain, eta besteak beste Gizakia Helburu errehabilitazio zentruaren laguntzari esker, guztiak lanean ari dira.



ZIZURKIL GOIKO JAIAK

ABUZTUAK 14, osteguna

19:00: AINTZINAKO IV. KORRIKA
20:30: Herri afaria Zentroan
00:00: ETZAKIT eta TRIKITAKE
musika taldeen emanaldia

ABUZTUAK 15, (Ama Birjina eguna)

11:00: Meza nagusia
12:30: Bukalai dantza taldea.
18:00: HERRI KIROLAK herriko
neska-mutil gazteen artean
Ondoren: IV. Toka txapelketa eta I.
Txinga txapelketa
22:00: BERTSOLARIAK. Bertsola-
riak: Andoni Egaña, A.M.
Peñagarikano, Jokin Soro-
zabal, S. Lizaso, Joxe Agi-
rre eta Jon Sarasua. Gai
jartzailea: Antton Kazabon.
Ondoren: URRATS taldearen emanaldia

ABUZTUAK 16, larunbata

UME FESTA: Buruhandiak, gaztelu
puzgarriak, marrazki era-
kusketa eta trititixa egun
guztian zehar.
12:30: Kros herrikoia haurrentzat
14:00: Haurren bazkaria
17:30 TUTIK ERE CLOWN pailazoak
Egunean zehar: Tapia soinujolea
Eguerdian eta arratsaldean: Millan

Telleria eta Mikel Mendiza-
bal bertsolariak

14:00: Jubilatuen bazkaria Iriarten
16:00: VII. Mus txapelketa
19:00: ABERE PROBA
23:00: TRAKETS taldea

ABUZTUAK 17, igandea

12:30: Pilotarien saioa
17:00: VI. AUTO KROSA
Ondoren: Pultsularien saioa

PRESO eta ERREFUXIATUENGAUA:

22:00: "Paperetik plazara": Jon
Enbeita eta Ireneo Ajuria
abesten; Roberto Etxeberria
soinua jotzen; Kepa Arriza-
balaga panderoa jotzen;
Idurre Erauskin teklatuan;
Haimar Arezjita gitarra jot-
zen eta Dani Asua baxuan.

00:30: AKELARRE taldea
06:00: Txokolatada

ABUZTUAK 18, astelehena

06:30: Oilasko bilketa
13:30: OILASKO JOKOA

OHARRA: Abuztuaren 22an ohiko OI-
LASKO AFARI HERRIKOIA izango da. Egu-
raldiak laguntzen badu plazan egingo da, Zi-
miterioan bestela.

• JAIETAKO EGITARAU AZALA AUKERATZEKO LEHIAKETA

Zizurkil beheko jaien berri eman-
go duen egitarauaren azala auke-
ratzeko lehiaketa antolatu du festa
batzordeak. Egitarau azalaren pro-
posamenak abuztuaren 1a baino
lehenago entregatu beharko dira
Aurrera tabernan. Lanek DIN A4
neurrikoak izan behar dute, lau
kolorekoak, eta honako testu hau
idatzi behar da bertan: "Zizurkilgo
jaiak 97. Irailak 4, 5, 6, 7, 8 eta 9".
Irabazleak 20.000 pezetako saria
jasoko du.

• JAIK ORDAINTZEKO KAMISETAK

"Zizurkilgo jaiak" leloa duten ka-
misetak jarriko dituzte salgai feste-
tan jai batzordeko lagunek. Herri-
ko tabernetan izango dira salgai,
1.500 pezetan. Dirua jaietako gas-
tuak ordaintzeko izango da.

• MIGUEL ANGEL BLANCO GARRIDOREN HERIOTZA GAITZESTE- KO EKIMENAK

Zizurkilgo Udalak, Andoaingo eta
Asteasuko Udalaren antzera, udal-
batzar berezia egin zuen joan den
astean Ermuko PPko zinegotzi
zenduaren, Miguel Angel Blanco
Garridoren, heriotza gaitzesteko.
Mozioa EAJ-PNV, EA eta PSE-
EE alderdiek aurkeztu zuten, eta
aho batez ETARI armak uzteko es-
katzeaz gain, Ajuria-Eneak zabal-
dutako agiriarekin bat egin zuten
beste erabaki batzuen artean. Era-
baki horietako bat atentatua gait-
zesteko antolatu zuten, eta herritar
asko bildu zuen konzentrazio isila
izan zen. Billabonan ere egin zu-
ten antzeko konzentrazioarik.

Agur Mattin!

«Minbizi mularikatu batek zezan berri hau, «Mattin Karrera, Arbonako
apaiza eta Arantzolako bihotza. Euskalduna hezur-muineturaino, inork ez be-
zala jakin hituan batesatzen alaitasuna, militantzia eta diskrezioa. Bertako gaz-
teen artean askatasunaren etorkizunaren hazia erietea lortu nahian ere, hize hut-
suzarekin Iparraldeak abertzaletasunaren zutabeak nagusienetikoa galdu dik,
eta Zizurkilak berri, benetako lagun handia eta leiala. Bihotza lur jota dugun
honetan, eta hagoen lekuan hagoela, hartzak, «Mattin, gure bezarkadatik han-
diena. Zizurkilak ez hau ez ahaztuko. Gure artean gertatuko haiz!»

Joxin Azkue



ILLUMBE, S.L.

Arantzola 10

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 TOLOSA

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 ANDOAIN

minihost

LIBURUDENDA
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN

ESNEAREN KALITATEA NEURTZEKO ARAU BERRIA

1998. urtean jarriko dute indarrean araua

Baserritarrek ezin izango dute hala holako esne eta esnekirik saldu datorren urteko lehenengo egunetik aurrera. Europa Batasuneko merkatuan salgai jarriko den esneak baldintza jakin batzuk bete beharko ditu

komertzializatu ahal izateko. EHNE sindikatuak duela urte batzuk arau berri honi buruz informatzeko hitzaldiak antolatu zituen, EN-BA sindikatuak duela gutxi egin duen moduan.



Esne kalitateaz zaindu beharrik.

Esne kalitatearen direktiba eta merkatua arautuko duen kuota sistemaren berri ematea izan zen ENBAK Tolosan egin zuen esne topaketaren helburua. Izan ere, datorren urtetik aurrera ezin izango da Europa Batasuneko merkatuan arau berriak ezartzen dituen baldintzak betetzen ez dituen esnerik saldu.

Hori dela eta, kontrolpean dauden ustiakuntzetako esnea izan be-

harko da merkaturatzen dena. Esneak, bakteriei dagokienez 100.000tik behera eta zelulei dagokienez berriz, 400.000tik behera neurtu beharko du, eta gainera, antibiotiko hondarrik ezin izango du izan. Hau guztia betetzeko, garbitasuna zaintzea beharrezkoa da, baita behien errape eta pezoiak egoera onean mantentzea ere.

KALITATEZKO ESNEA LORTZEKO AHOLKUAK

- Behiak jeztean: Behiak jetzi egiten diren lekuak garbia egon behar du eta ez da komeni behiak jezteko momentuan behiei pentsua ematea. Era berean, pezoiak garbitu egin behar dira eta lehen esne-zorrotada ez da lurrera bota behar.
- Behiak jezteko makinariari buruz: Jezteko gomek osorik eta garbiak egon behar dute. Horrezaz gain, ez da komeni behiari esne gehiegi jeztea, pezoiei kalte ez egiteko. Azkenik, makina garbi mantentzea aholkatzen da.
- Biltegia zaindu: Esnea hotz mantentzeko biltegia garbitu egin behar da bertako esnea jaso ondoren. Esnea ez da 2 ordu baino denbora gutxiagoan hoztu behar, eta biltegiak hozteko duen kapazitatea ezin izango da gainditu.
- Esnean inhibiturik ez agertzeko: Esnari ez gehitu kontserbanterik ez desinfektanterik (lixiba e.a.). Behiei ez eman botikarik aurrez al-baitariarekin hitz egin gabe, eta noski, errespetatu sendatzeko tratamenduen eta antibiotikoen epeak.

► **HARPIDEDUN EGITEKO BETE EZAZU TXARTELA LEHENBAILEHEN ETA BIDALI GURE EGOITZARA EDO DEITU 300732 TELEFONORA!**

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.

Helbidea:

Kontu korrontearen zenbakia:

Kodea: Herria:

Entitateak Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Lanbidea: Jaiotze data:

Tokia, data eta izenpea:

Etxeko : Laneko :



Haurrak masaia tailer batetan.

UDALEKUAK, HEZITUZ DISFRUTATZEKO LEKUAK

Beterri-Aiztondoko lau herrietan egiten dira udaleku irekiak

San Juanak iritsi bezain pronto oporrak hartzen dituzte gaztetxoek. Lo egiteko, telebistaren aurrean gosaltzeko eta ilundu arte kalean ibiltzeko egunak hasten dira kurtso osoa iraun duten koadernoak San Juan sura bota ostean. Uztailean, baita abuztuan ere, beren denbora librea eta aisialdia betetzeko aukera ugari

dute egungo haurrek. Izan ere, bi aste oso gurasorik ikusi gabe "disfrutatze" aukera dute herriko talde nahiz erakundeek antolatzen dituzten udaleku itxietan. Horrezaz gain, eta herrian bertan, jolas eta ekintza ugari egiteko parada dute goizean udalek antolatzen dituzten udaleku irekietan.

Andoain, Billabona, Zizurkil eta Asteasuko herritarrak ohituta egongo dira honezkero goizero goizero haurren zalapartak entzuten. Larraul eta Adunakoak ere ez dira atzera geratzen, baina bi herri hauetako haurrak igeri egitera joan dira egunero Andoaingo igerilekura. Iaz arte udaleku irekiak antolatzen zituzten herrian, baina aurrean, aldatzeagatik edo, igeriketa ikastaroa antolatu dute. Hamalau urte arteko haurrak joaten dira igeri egitera, txikienei laguntzera - eta hurrenez hurrenez ongi pasatzera - joaten diren guraso eta laguntzaileekin batera. Guztira 454 haur dabilta eskualdeko udaleku irekietan, eta 40 begiraletik gora horiek "zuzendu" nahian. Gainera, eta urtetik urtera gehiago, begirale gehienak titulodunak dira. Goizetan bakarrik biltzen dira, eta batzuek gehiago besteak gutxiago, guztira, lau ordu inguru igarotzen dituzte. Herriko eskoletan biltzen dira, eta aurtengo uda kasikarra dela-eta, inoiz baino ekintza gehiago egin behar izan dituzte eskola barruan edo leku estalian. Adin guztietako haurrak dabilta udaleku hauetan, 3 urte baino gehiago eta 12 urte baino gutxiago dituztenak beti ere.

EUSKARA ETA HARREMANAK HELBURU

Helburuak antzekoak dituzte eskualdeko udaleku guztiek. Zizurkil eta Billabonakoek. *Oporretan euskaraz* izenak aditzera ematen digun bezala, haurrak opor garaian euskaraz mintzaraztea lortu nahi dute. Hau da, haurrek eskolaz kanpo euskara erabili "beharra" sentitzea eta euskara komunikazio tresna moduan erabiltzea. Hori dela eta, euskaraz egiteko hainbat aktibitate eta jolas antolatzen dituzte udalekuekin, eskolarekin baino dibertsioarekin zerikusirik handiagoa duten aktibitateak. Andoaingo *Goazen jolastera* eta Asteasuko udaleku irekiek ere helburu hori dute, besteak beste. Asteasuko begiraleek esan digutenez, ordea, beren herrian helburu hori nahikoa "beteta" dute. "Udalekuaren helburu nagusia herriko haurren arteko harremanak mantentzea eta sakontzea da. Kalean eta baserrian bizi diren haurren arteko harremanak sakontzea, adibidez", esan digute Asteasuko begiraleek. "nahiz eta aurrean baserriko haur gutxi eman duten izena". Lau begiralek eta 37 haurrek osatzen dute udalekua, eta haurren gau-

zarik gustukoena eskulanak egitea dela esan digute. "Gustuko lana da begiralearena, haurrak asko gustatzen baitzaizkigu", esan digute, haurrek beraien "andereño" deitza batere ez zaiela gustatzen gaineratuz.

"Herriko haurren arteko harremanak sakontzea da helburuetako bat"

ESKOLA EZBERDINETAKO HAURRAK ELKARREKIN

Andoaingo *Goazen Jolastera*ko lagunek herriko eskola guztietako haurrak biltzen dituzte. Uztailean eta abuztuan egiten dira udalekuak Andoainen, eta hil honetan 227 haur dabilta bitartean, abuztuan 24 besterik ez dira ibiliko. Haurrak nahikoa txikiak dira gehienak, "zaharragoek udaleku itxietara joateko ohitura eta aukera gehiago baitute", esan digute begiraleek. Hemazortzi begiraleez gain, hiru laguntzaile ari dira lanean, arazo fisikoak dituzten

haurrei laguntzeko. Herria eza-
gutzea da udalekuaren helburue-
tako bat, herriko haurren arteko
harremanak sakontzeaz gain: "Es-
kola ezberdinetako haurrak el-
kartzen zaizkigu, ikasturtean ze-
har bata besterekin harremanik
ez duten haurrak. Herriko haur
horien artean harremanak sortzea
da gure eginkizunetako bat". Bi-
llabonako *Oporretan euskaraz*
udalekuko begiraleek harreman
horiek haur txikien artean lortzea
errazagoa dela adierazi digute:
"Txikienak errazago sartzen dira
udaleku irekiaren eguneroko di-
namikan. Errazagoa da beraien
arteko harremanak sakontzea,
euskaraz hitz egiteko giroa sort-
zea e.a. Handienek ez dituzte be-
ren egunerokotasunean dituzten
mugak erraz hausten". Hamar be-
girale eta 91 haur dira Billabonan.

ASMO BERRIAK

Zizurkilgo *Oporretan euska-
raz* udaleku irekian sei begirale
eta 16 haur ari dira aurrez aipatu
ditugun helburu horiek jolas eta
dibertsioaren bitartez lortu
nahian. Irteera ugari egiten dituz-
te zizurkildarrek, eta begiraleek,
irteerak gustatu eta luzeagoak
egin nahian edo, hurrengo urteari
begira asmo berriak dituzte: "Uda-
leku irekiera etortzen ez diren haur
zaharragoekin egiteko irteerak
edota egungo haurrekin gau bat
pasatzera joateko irteerak egitea
ongi egongo litzateke". Baina, eta
udaleku hauek Udalaren esku
claudenez, hurrengo urteari begi-
ra egin beharreko planteamen-
tuak dira horiek.

Goiza pasatzeko era bat eta
udako lan bat baino gehiago dira
udalekuak haur eta begiraleent-
zat. Izan ere, adiskideak egiteko,
taldean ongi pasatzeko eta bide
batez hezitzeko lekuak dira uda-
lekuak, nahigabe bada ere.

"Haur zaharrenek udaleku itxietara joateko ohitura eta aukera gehiago dute"



Rol sexistak aldatu nahian.

URTXINTXA HEZITZAILE ESKOLA

"Udaleku irekiak euskararen
erabilpena areagotzeko, herriko
haurren arteko harremanak sakont-
zeko eta marginazio kasuak inte-
gratzen saiatzeko dira egokiak. Era
berean, astialdiko alternatiba bat
eskaintzen dute eta heziketa balo-
reetan (kooperazioa e.a.) bizitzeko
aukera ematen dute, goizean baka-
rrik bada ere. Guk Lezo, Pasaia,
Hernani eta Hondarrabiko udaleku
irekiak antolatzen ditugu. Herriko
begiraleak aukeratzen ditugu udale-
kuan lan egiteko, eta haurrekin ga-
ratu beharreko programa beraiek
egiten duten arren, guk azken be-
giradaxoa ematen diogu aporta-
zioak egiteko. Programaren aste
bakoitzak interesgune bat dauka,
hots, astebetean egiten diren ekint-
zek ildo jakin bat jarraitzen dute au-
rez ezarritako helburua lortzeko.
Hala ere, udaleku itxietan erraza-
goa da interbentzio hezitzaile bat

egitea, harreman estuagoak lort-
zen baitira haurrekin eguneroko
konbibentzia dela-eta.

HEZKIDE HEZITZAILE ESKOLA

"Udaleku irekiek haurra herrian
bertan, bere ingurunean, hezitzeko
aukera ematen dute. Udaleku ire-
kietan, gure hezitzaileek, haurrak
bere ingurunean eta ingurukoa
errespetatuz hezitzen saiatzen dira,
eta beraz, ez da denborapasa bat.
Donostian Kutxak antolatzen di-
tuen udaleku irekietaz gu ardurat-
zen gara, eta bertan heziketa pro-
zesu bat aurrera eramatea udaleku
itxietan baino zailagoa izan arren,
saiatzen gara zeregin horretan.
Egokiena urtean zehar lanean aritu
den aisialdiko taldeen ikasturte
amaierako udalekuak izaten dira,
urtean zehar landutakoa erreforza-
tu egiten baita udaleku horietan".

M Talleres
Mendi S. L.
Burdinezko piezen egintza,
planuen araberakoa.
Pieza hidraulikoak eta neumatikoak.
Mekanizazioa.
Urrietako bidea, z/g. ANDOAIN
☎ 59 04 52 - 59 05 08

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

PIPILOAN
HEZKIDURNE

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

Goiko
OPTIKA

Udara honetan zure begietako kolorea
alda dezakezu 3.500 pezetagatik

Arteta z/g - 20140 ANDOAIN
☎ 590955

OPORRAK IGAROTZEKO

Oihane Otegi

Asteasuarra

20 urte

Historia ikasten ari da



Ikasturtea amaitu eta txanpon batzuk ateratzeko, Oihane, uztailean, Asteasuko udaleku irekietako begirale gisa jardungo du.

Zein motatakoa da orain lanean ari zaren udalekua?

Asteasuko Udalak antolatzen duen udalekua da. Uztailean herriko haurrek beren adiskideekin jolastu eta ondo pasatzeaz gain, inguruko herrietara joateko aukera dute udaleku honen bidez. Goizez bakarrik izaten da, goizeko 9:30etatik eguerdiko 13:30ak arte.

Noiztik zara udalekuko begirale?

Begirale izateko monitore titulorik behar ez arren, iaz egin nuen begirale tituloa lortzeko ikastaroa. Hala ere,

aurtengoa, begirale gisa jarduten dudana bigarren urtea da.

Zenbat haur dituzue udalekuan?

4 eta 11 urte bitarteko 35 haur ditugu lau taldetan banaturik. Lau begirale gara, eta nik, adibidez, 6, 7 eta 8 urteko hamabost ume ditut nire ardurapean.

Zein ekintza antolatzen dituzue?

Eskulanak, jokuak... Eguraldia ona bada igerilekura, Larraulera, Zizurkilgo portotoketara edota beste herrietara joan ohi gara egunpasa.

Zergatik aukeratu duzu begirale gisa aritzea udaran?

Abuztuan ikasi egin beharko dut, eta beraz, ezin dut oporretara urrutira joan. Goizean hemen lan eginez, arratsaldean etxean izaten naiz ikasteko.

Elena Marcos eta «Atxur» Azurmendi

Andoaindarrak

24 eta 30 urte

Irakasleak



Uztailean 19an, Santakrutzen, ezkondu berri dira, eta orain, eztei-bidaia egiten ari dira Atxur eta Elena. Udan jendea erruz ezkontzen da eta bidaia atzerriko leku asko eta ezberdinetara egiten dute ezkonberriek. Elena eta Atxurren kasua, ordea, ez da hori.

Nora zoazte eta zenbat denborarako?

Haseran Europa ekialdera joateko asmoa genuen, beste kultura ezberdinak ezagutzeko asmoz. Baina etxean gustu

gida liburu baten laguntzarekin, Portugaleko ohitura, kultura eta bizimodua ezagutzea da gure asmoa.

Noiz erabaki zenuten ezkontzea?

Badira zortzi urte elkarrekin ateratzen gabela. Ez genuen ezkontzeko presarik, baina momentu ona iruditu zaigu aurtien ezkontzea. Biok lanean ari gara eta etxea ere erosi genuenez, duela urtebete edo ezkontzea erabaki genuen. San-

asko izan ditugunez bidaia hemen inguruan gure kontura egitea erabaki dugu. Portugalera joango gara 20-25 egun pasatzeraz gure furgonetan. Gure kontura egini-ko bidaia da;

takrutzen ezkondu gara, izan ere, monotore lanetan genbiltzala bertan ezagutu baikin. Gure bizitzako gauza asko lotzen dira bertan eta orduan apaiza zen Inakik ezkondu gaitu.

Zergatik ezkondu zarete udan?

Biok lanean gabiltzalako. Udaran, gainera, eguraldi ona egin ohi du eta oporretan zaudenez, eztei-bidaiatik etorri eta ez duzu berehala lanera bueltatu behar. Arrazoiz askorengatik aukeratu dugu udan ezkontzea.

Prestaketa asko egin behar izan al dituzue ezkontzarako?

Gauza txiki asko hartu behar dira kontutan baina ez da hainbesteko lana. Gaur, ezkontza kontsumismoa baino ez da, baina gu zenbait gauza ebittatzen saiatu gara. Familia eta lagunen artean eginiko ospakizuna izan da.

MODU EZBERDINAK

Placido Ormazabal eta M. Isabel García

Andoaindarrak
75 eta 73 urte
Jubilatuak

Osasun arazo batengatik Benidormera joatea gomendatu zieten sendagileek, eta jada, hoguei urte daramatzate Benidormera joaten. Klima aldaketak on egin zien, eta orain, lagun talde batekin pasatzen dituzte opor-egunak.

Zergatik joaten zarete Benidormera eta noiztik?

Duela hoguei urte joan nintzen lehenengo aldiz Benidormera. Lanak sorturiko tentsioa gutxitzeko Benidormeko klimak on egingo zidala eta, emaztea eta biok joan ginen Benidorm-eraino. Ordutik aurrera urtero joan ohi gara.

Zenbat denborarako joaten zarete?

Jubilatu bitartean irailean joaten ginen, eta orain berriz, urrian joaten gara. Hilabete pasatzen dugu bertan, hotelean.

Gure kontura egiten dugun bidaia da, eta beraz, guk erabakitzen dugu zer egin. Zerbait

urtetan apartamentura joan gara, baina emazteak lan gehiago egin behar izaten zuen; gainera, asko gastatzen genuenez hotelela joatea erabaki genuen. Andoaindik Benidorm-era jende asko joaten da.

Zein aktibitate edota ekintza egiten dituzue?



Benidorm-era joaten garenean, 8-10 personako lagunartea osatzen dugu eta bizitza komuna egiten dugu. Goizean hondartzara joaten gara; arratsaldean piska bat deskantsatu ondoren, paseatu eta lagunekin solasaldiak izaten ditugu. Gauean berriz, hotelean jai giroa izaten dugu, eta hotelean bertan geratzen gara. Oso ongi pasatzen dugu.

Alaitz Mujika (Zizurkil) eta Ixone Lahidalga (Billabona)

21 urte
Erizaintza eta soziologiako ikasleak
Brigadistak

Ikasturtea ikasten pasa ondoren eta udan lana egiteaz gain, herrialde "azpigaratu" bateko errealitatea ezagutu, solidarizatu eta elkartasuna adierazi nahian Cubara joango dira abuztuan. Poliklina bat berregitea izango da beraien lana.

Nolatan bururatu zaizue brigadista gisa Cubara joatea?

Iaz planteatu genuen bidaia hau baina denbora gutxi genuen inora joateko. Aurten goaz brigadista gisa lehenengo aldiz. Ez genekien zein talderekin joan, baina lagun batek horren berri emanda, Komite Internazionalistarekin jarri ginen kontaktuan eta Cubara joatea erabaki genuen.

Zein izango da zuen lana?

Goizez poliklinika bat berregiten ariko gara. Hau da, paretak pintatu, sare elektrikoa berritu ... Arratsaldean berriz, bertako talde ezberdinen arteko bilera eta debateak antolatuko ditugu. Bileretan parte hartuko duten taldeen artean Partido Comunista Cubano

(PCC), Federación de Mujeres Cubanas (FMC) eta Unión de Juventudes Comunistas (UJC) taldeak izango dira. Helburua, beraien egoera sozio-politiko ezagutzea eta beste errealitate bateko herriekin erlazionatzea da.

Zein eskakizun bete behar dira brigadista gisa lan egiteko?

Gure kasuan, gu taldeko gazteenak gara. Gehienek 25-30 urte bitarte dituzte. Guri ez digute ezer berezirik eskatu. Joan etorria eta egonaldia guk ordaintzen dugu eta eskatzen duten gauza bakarra proiektuko helburuekin bat egitea da. Ez goaz gure karitatea ematea, gainera, talde batekin goaz; beraz, besteak errespetatzeaz gain, lana egitera goaz. Erresponsabilitatea eskatzen duen lan bat burutzera goaz.

Cuban egingo duzuen lanarekin bukatzen al da proiektuaren lana eta helburua?

Ez. Etxera bueltatzen garenean jendea sentsibilizatzea da hurrengo pausua.

Proiektua ez da bidaiarekin amaitzen. Herri horiekin elkartasuna adierazteko era bat da.



Andoain



Noiz hasi zinen pilotan jokatzeko?

Txikitari hasi nintzen. Hasieran esku pilotan hasi nintzen Arrate frontoian. Lagunekin palan ere jokatzeko nuen, eta azkenik, 14 urterekin, erremontean jokatzeko hasi nintzen; Andoain lehenik eta Galarreta eskolan ondoren. 18 urterekin debutatu egin behar nuen, baina debutatzeko astebete falta zenean, mina hartu nuen eta 20 urte izan arte ezin izan nuen profesioletan debutatu. Erremontean pilota zestari hartu bezain pronto berriro paretera bota behar da. 35 tantorako partidua izan ohi dira nik jokatzeko ditudanak.

Zaila al da profesioletara pasatzea?

Normalean, partiduetan eta txapelketetan maila ona erakutsiz gero, baduzu profesioletara iristea, ez da hain zaila. Badira txapelketarik jokatu gabe profesioletara pasa direnak ere. "Kantxeroak" izaten dira joku mailaren berri ematen dutenak eta enpresek berriaz, profesioletara gisa jokatzeko kontratua egiten dute. Kategoria horretan mantentzea ere ez da erraza, maila ona erakutsi behar da kontratua berriki ahal izateko.

Zein ezaugarri fisiko behar ditu pilotari on batek?

Teknika ona izateaz gain, indarra eta hanka azkarrak izatea. Errefleju onak izatea ere garrantzitsua da.

XABIER BITORIA:

"PILOTA NAHIKO KIROL MINORITARIOA BADA, ERREMONTA GEHIAGO"

25 urteko pilotari gazte honek 5 urte daramatza pilotari profesioletara gisa jokatzeko. Erremontean jokatzeko du, "bigarren" kategorian eta bikotearekin. Aurtengo pilota partidua gehienak irabazten ari da eta gustura dago oso lortzen ari diren emaitzekin. Pilotaren mundua zertxobait gehiago ezagutzeko solasaldi bat izan dugu berarekin.

Zein preparazio mota egiten duzue?

Orain arte jendeak ez zuen preparazio handirik egiten, baina, orain, pilotariek gimnasioa joaten dira edota entrenadore fisiko batekin entrenatzen dute.

Zein da enpresaren lana?

Galarreta enpresak erabakitzen du nor izango den profesioletara, berak kontratatzen ditu pilotariak. Horrezaz gain, partidua non jokatu ere bere esku dago. Azken batean, langile guztien antzeria, enpresa da pilotarien etorkizunaz arduratzen dena, nahiz eta pilotaria den bere preparazio fisikoaz arduratzen dena.

Noiz hasten da pilota partiduen egutegia?

Urte osoan zehar jokatzeko dugu. Uztailan, San Ferminetan, askotan eta abuztuan ia egunero. Gabonetan ere askotan jokatzeko dugu. Gainerakoan, ostegun, larunbat, igande eta jai egunetan jokatzeko ditugu partidua. Nik adibidez, Euskal eta Galarreta frontoietan jokatu ohi ditut pilota partidua.

- Zein jende mota joaten da partidua ikustera?

Gizonetako helduak joan ohi dira pilota partidua ikustera. Gazte gutxi joaten da. Ikuslego horietatik asko ia egunero etortzen direnak, apustulariak dira. Egia esan, ikuslegoak aposturik egingo ez balu, ez litzateke pilota partidurik jokatzeko. Enpresak apostu eta sareteretatik ateratzen du dirua.

Zizurkil

HALTEROFILIAKO PUNTAREN

Zizurkilgo halterofiliako kirolariek partidua lortzen dituzte emaitza onak eta garrantzitsuak. Gipuzkoako, Euskadiko eta beste emaitzak dira horren guztiaren adierazleak.

Gipuzkoako txapelketa (absolutoa)

Andres Rubiños, Javier Muñoz, Jose Regatos, Andoni Kortajarena, Raul Mendez eta Aitor Trecedorrek lehen postua lortu dute beren kategorietan. Daniel Legorburuk 2. postua lortu du bere kategorian.

Kategoria guztietako irabazle absolutoa: Andoni Kortajarena

Gipuzkoako txapelketa (kadeteak)

Javier Gonzalez eta Francisco Gonzalezek 1. postua lortu dute.

Roberto Hernandez eta Iñigo Gorostegik berriz, 2. postua.

Kadete mailako irabazle absolutoa: Francisco Gonzalez

Euskadiko txapelketa (absolutoa)

Andres Rubiñosek 1. postua, Raul Mendez eta Ion Tecedorrek 2. postua eta Javier Muñozek 3ena.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

JON BARRONDO: "ONDO JOLASTEN DUEN PILOTARIAK EUSKAL HERRITIK KANPO JOKATZEKO AUKERA IZATEN DU"

29 urte ditu eta hogei daramatza pilotan jolasten. Txikitatik hasi zen pilotan jolasten, bere anaiarekin batera, eta orain, zesta puntan jokatzeko du. Andoainean hasi, Ermuan jarraitu eta Estatu Batuetaraino joan da pilotan jokatzera. Euskal Herriko frontoietan dabil pilotan azkeneko bi urteetan.



na oportrik ez dugu izaten.

Euskal Herrian ezezik, atzerrian ere ibilia zera; zein herrialdetan?

Gipuzkoatik kanpora ateratzea da zailena. Ni, lehenengo aldiz, Ermuara joan nintzen izeba-osoben etxera pilotan gehiago jokatzeko asmoz. Ondoren, eta Estatu Batuetan zesta puntan asko jokatzeko denez, Tampara joan nintzen pilotan jokatzera. Tampan zortzi urtez egon ondoren, Mexikora joan nintzen beste bi urte terdirako. Orain, ordea, bi urte daramatza Euskal Herriko frontoietan pilotan jokatzeko.

Estatu Batuetako eta Euskal Herriko pilota jokua zertan ezberdintzen da?

Hemen ez bezala, Estatu Batuetan kinielak jokatzeko dira pilota partiduetan. Zortzi bikoteraren arteko kinielak izaten dira eta 7 tantora jokatzeko dira. Euskal Herrian berriz, bi bikoteraren arteko lehia jokatzeko da, 35 puntutara. Horrez gain, Estatu Batuetako ohitura eta bizimodua oso ezberdinak dira.

Zein egoeraxtan aurkitzen da egun euskal pilota?

Estatu Batuetan egon nintzen urteetan bertako pilotariak gehiago irabazten zuten, baina lan injustizia handiak gertatzen ziren. Hori zela eta, 3 urteetako greba egin genuen EEBBetan, eta horrek eragina izan zuen euskal pilotan ere. Orain, hemen zein kanpoan, egoera parekatua dago, eta pilotan asko jokatzeko da, bereziki uda partean.

Pilotaria jaio edota egin egiten da?

Nire ustez, pilotaria jaio egiten da. Kantxan egoten jakin behar da eta aurkariak pilota bota baino lehenago pilota nora joango den antzeman behar da. Horrez gain, pilotaria azkarra eta indartsua bada, askoz hobea. Beraz, ez da nahiko ezaugarri fisiko egokiak izateak soilik.

Zergatik aukeratu zenuen pilotari izatea?

9 urterekin hasi nintzen pilotan jokatzeko. Anaia eta biok Elizondorekin ikasi genuen pilotan jokatzeko. Esku pilotan jokatzeko hasi nintzen arren, zestetan jokatzeko hasi nintzen ondoren. Gauzak horrela, 16 urterekin profesionaletan debutatu eta gaur egunera arte zesta puntan jokatzeko jardun dut.

Zein kategoriatan eta noiz jokatzeko duzu?

"Estelar" kategorian jokatzeko dut, bikotearekin. 35 tantorako partiduetan jokatzeko ditugu eta, normalean, ostiral, larunbat, igande eta astelehenetan jokatzeko ditugu partiduetan. "Euskobaske" enpresarentzat egiten dugu lana, eta Durangoko enpresa denez, Gernika, Durango edota Gazteiz inguruko frontoietan jokatzeko dugu. Udan ia egunero izaten ditugu partiduetan. Neguan partidu gutxiago jokatzeko ditugu, bai-

KIROLARIAK PUNTAN

te hartzen duten txapelketa orotan denak. Oraingo honetan ere horrela Europako txapelketetan lortutako garri:

Mediterraneoko jokuak (Italia)

Ion Tecedorrek zilarrezko domina lortu zuen.

Europako emakumezkoen txapelketa absolutoa (Sevilla)

Lourdes Gorostegik brontzezko domina eta Europa juniorreko errekorra lortu zuen.

Espainiako txapelketan (Madril) parte hartuko duten kirolarien zerrenda

(Abuztuaren 1etik 3ra ospatuko da txapelketa)

Lourdes Regatos, Goreti Salaberria, Oihana Legorburu, Naroa Geresta, Javier Gonzalez, Francisco Gonzalez, Roberto Hernandez, Andres Rubiños, Javier Muñoz, Andoni Kortajarena, Raul Mendez, Gorka Lopez eta Ion Tecedor.

KIROL JANTZIAK

Liracuna

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 ☎ 59 44 47

ANDOAIN

Zizurkil

Kostako herrietara txangoa
1960ko hamarkada

Zutik ezkerretik eskuinera: Ezezaguna, Axun Lizarraga, ezezaguna, Beatriz Carvajal, Maria Jesus Barriola, ezezaguna, Arantxa ... Maria Jesus ... Arantxa Caldos, ezezaguna, ezezaguna, Maria Carmen Usabiaga, Maria Sanchez eta Tere Hernandez.

Makurtuta ezkerretik eskuinera: Victoria Barragan, ezezaguna, Maria Pilar ... Maite Lizarraga, Mertxe Barriola eta Juani.

Udaberrian eta udaran maiz egiten zituzten txangotako bat da argazkikoa. Don Bartolome apaizak antolatuta egiten zituzten txangoak garaiko zizurkildar gazteek, neskek eta mutilak batera. Hala ere, argazkian ez dira guztiak batera

agertzen, mutilak alde batean eta neskek bestean jartzen baitziren argazkia ateratzeko.

Ea ezezagun gisa jarri ditugun herritarren izen-abizenak eta argazkia ateratako lekua zein den asmatzen dituzuen!

Oharra: Argazkia eta bertako informazioa Maria Sanchezek eskaini dizkigu. Eskerrik asko Mariari eta zuei berriz ea zuen gazte denboratako argazkiak Aiurri argitaratzen saiatzen zareten! Deitu 300732 telefonora argazkiaren kopia bat egin eta informazioa jasotzeko.

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAU

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA!!

Kaleberria 22

Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

FERRETERIA

GOROSTIDI

BURDINDEGIA

SUKALDERAKO TRESNERIA

Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN
Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

Beterriko Liburua 1.997

ZAPATA-REN OIHANA

Iñigo Aranbarri



Susa
179 orr.
1.800 pta.



• bikaina
• ona
• egokia

Egilea: Iñigo Aranbarri Azkoitian jaio zen 1963an. Ez da lehen aldiz euskal literaturako liburuetara azaltzen dena. Aurretik *Jonas Poissin* eta *Dardokak eta elurak* poesi liburuak kaleratu zituen. Gero 1994an bere lehen eleberria *Emon biar yako* eman zuen argitara. Debako Tene Mijika literatur saria ere irabazi zuen *Ikatzezko koardoa* obrarekin.

Liburu hau, alde batetik, eleberria da eta, bestetik, bidai liburua. Izan ere, bidai liburutzat har dezakegu, herri batean bizitako esperientziak kontatzen dizkigulako, baina ez da ohiko gida liburua. Badu eleberrri baten egitura ere.

Gaia: Chiapasen zaudete liburua zabaldu orduko, zapatisten oihanean. Bertako mapa eta irudiak dauzkazu, basoan eta lokatzetan galdu ez zaitezten. Egilea Chiapaseko La Realidad-en izan zen iaz, EZLNk antolatutako Gizateriaren alde eta liberalismoaren kontrako topaketetan. Liburuan, beraz, han entzun eta ikusitakoekin kontaktuz nobelatua da.

Chiapas, zapatistak, indigenen eskubideak, eremu murrizteko hizkuntzen defentsa... hori guztia baino gehiago ere badago liburu honetan. Bertan, irabazleen logikatik eta mundutik kanpo badagoela beste mundu eta logika bat erakusten digu, eta guztia historiako klaseetan irakasten ez den sentimenduaren begiekin dago ikusita, Aranbarrik zapatisten aurpegi estalietan ikusten dituen begi horiekin: "Begi batzuk historiaren kontra".

Iñigo Aranbarrik berak dio Zapata-ren Oihana kontraesanen kronika dela. Lehenik, "euskaldun naizen aldetik neure burua agertu behar izan dut", euskaldun jatorriko pertsona ugari direlako Zapatistek daramaten borrokaren etsai nagusi. Bigarren kontraesana, "Marco komandanteak mendebaldearekin komunikatzeko gaztelera erabiltzen du eta haren bidez inolabait iraultza zapatistaren aurpegi amablea ezagutzen dugu; baina barneko etniei begira, hizkuntzak beste batzuk dira eta barneko egoera askoz ere gogorragoa da".

Azken finean hau da kontua: "500 urte igaro direla, eta ez dela hangoa ulertzen, ez ditugu inoiz ulertu, ez botereak, ez eta guk geuk ere. Bi munduen ezin ulertua da han ikusi dudana".

Chiapaseko etnien eta hango herrien sufrimenduaren berri izan nahi duten guztientzat irakurri beharreko liburua.


Herriko txokoak



Zumalakarregi etorbidea, 7
20400 TOLOSA - Tfn 28 81

"Herriko txokoak" lehiaketa berriko erantzuna, zuetako askok asmatu duzuen bezala, Andoaingo garai bateko trenbideko zubia da, **Lizarkola edota Renfeko zubia** gisa ezagutzen dena, hain zuzen ere. Irakurle asko izan dira trenbidera iristeko ibilbidea ere zein den azaldu digutenak. Erantzunen artean, andoaindarrez gain, asko dira Billabona eta Zizurkildik iritsi zaizkigun eskutitzak.

Lehiaketa berriko lehen irabazlea **Lierni Mendia** da. Gure lehiaketara idaztera animatzen den lehengoa aldia izan da eta ezin zuen sinetsi **Puntu Puntu** dendak eskainitako kojina egiteko hariak eta tresneria berari egokitu zitzaizkionik: "Oparia asko gustatu zitzaidan eta idaztera animatu nintzen, besterik gabe". Beraz, lerro hauen bidez zorionak Lierniri eta beste guztioi eskerririk asko idazteagatik. Hurrengoan zuetako norbait izan daiteke lehiaketako irabazle berria. Animo eta zorte on!



MUSIKA

ANDOAIN

Uztailak 25: "Tornado Brass Band" jazz taldearen emanaldia. Goikoplazatik Erxeberrietarako ibilbidean zehar, arratsaldeko 20:00etatik 21:15etara. Gaueko 22:15etan kontzertua Etxeberrietako futbol zelaian.

Uztailak 27: Belize dantza taldearen emanaldia. Nafarroa plazan, arratsaldeko 20:00etan.

ZINEMA

ANDOAIN

Abuztuak 9: Andoaingo Udaleko gazteria batzordeak antolatuta, "El primer Caballero" filmeanren proiektzioa. Goikoplazan, gaueko 22:00etan.

Abuztuak 23: Ordu eta leku berean; "Lady Halcon"

Irailak 6: Ordu eta leku beran; "Un padre en apuros".

MERCATU TXIKIA

Kotxea salgai: "Lancia Y 10" kotxea salgai. Berriberria, (SS-AT matrikula) eta kanbio automatikoa. Deitu 592485 telefonora (Gregorio).

Klase partikularrak: Udaran zehar klase partikularrak emango nituzke lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikasleei eta administraritza arloko ikasleei (LOGSE, BUP, REM, FP, Administraritza). Oharra: ikaslearen etxera joango nintzateke klaseak ematera (euskaraz edo erderaz). Tfnoa.: 69 20 28 (Arantza)

BESTE

IURRETA

Uztailak 18-27 **Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak** AHTren aurkako II. Akanpada antolatu du Iurretan (Durangaldean).

Uztailak 25: 12:00etan: AUTONOMOEKIN SOLASEAN liburuen aurkezpena eta eztabaidatxo

17:00etan: ZUHAITZ HAZITEGIA tailerra, 19:30etan: Kontsumoari buruzko txarla-eztabaida. (J. Aingeru Mitxi (Sumendi))

23:00etan: ANTZERKIA "Lupita Dumont", Marimba kolektiboa

Uztailak 26: 10:00etan: ESKALATZAILE EKINTZA tailerra, Urkiolaren Aldeko Batzordearekin

12:00etan: "Poder, dominación y propiedad en relación al TAV" gaiari buruz, Erlirekin solasaldia

18:00etan ANTZERKIA


19:30etan: "OKUPAZIO ERRURALA ETA BASERRITAR GAZTEEN ERABIDEAK". Txarla-eztabaida, Lakabe eta Arizkurengo herriak eta EHNEko base-ritar gazteak.

23:00etan: Kontzertua TXATUNGA PEMPE...

Uztailak 27: 11:00etatik aurrera: Iurretako San Miguel plazan: Haur jolasak, "El Tenderete", txontxongiloak, bertsolariak, erakusketa informatiboa...

15:00etan: HERRI BAZKARIA

KOMIKIA



Santio Jaiak 1999

ongi pasa!

Tinta
inprimategia

- fotokopiak
- azaleztapenak
- fax zerbitzua
- inprimakiak orohar


Kale Nagusia, 31
Tel. Fax: 69 06 04
20150 BILLABONA

EUROPEAN SCHOOL HIZKUNTZ AKADEMIA

- ✓ JATORRIZKO IRAKASLEGO TITULUDUNA
- ✓ INTERPRETARITA ETA ITZULPEN SERBITZUAK
- ✓ IKASTAROAK URTE OSOAN
 - «STEP UP» PROGRAMA, ESKOLARAKO LAGUNTZA
 - ENPRESETARAKO IKASTARO BEREZIAK
- ✓ AZTERKETA OFIZIALETARAKO PRESTAKUNTZA
- ✓ CAMBRIDGE, ALLIANCE FRANÇAISE TULUTARAKO AZTERTEKAK
- ✓ TALDE MUGATUAK

INGELESA - FRANTSESA

Kale Berria, 10 Tel. 69 39 76
BILLABONA



TESTU LIBURUAK
(OHO - BBB - LH EA)

ESKOLARAKO OSAGARRIAK

JOKO DIDAKTIKOAK

IRAKURKETA LIBURUAK

ALDIZKARIAK

PAPERDENDA

Eskolara itzultzeko behar duzun guztia.

ONDO IGARO JAIK!

BILLABONA
KALE NAGUSIA, 29 ☎ 69 16 51

AMAIUR

KALE NAGUSIA, 24 ☎ 69 16 11
BILLABONA

Opariak
Lurrundegi
Jantziak
Bitxitegia
Osagaiak


*Jai zoriontsuak opa dizkizue
billabonatar guztiei.*



*Ogi berezi eta
artesanauak*
•••
*Etterainoko
zerbitzua*

Okindegia, S.L.
Lizarra-etxea, 32 Elizmendi auzoa
20159 ASTEASU/ ☎ 693294-691896

OGI . GOXO
okindegi ta gozotegi



**Bezere eta herritarrei festa
alaiak opa dizkizuegu!**

Kale nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

G A N D A R A



T A B E R N A

Arteta Kalea 5-7 behea. ☎ 59 19 71

— ANDOAIN —

KONTZERTUA gaueko
10etan

Uztailak 30 → Sweet Bhang

SAGARDOTEGIA
JATETXEA

URRITZA

7. Area - Poligono Industriala (Behe solairua)
20.150 ADUNA ☎ 69 33 96




- ◆ Eguneko menua
- ◆ Karta
- ◆ Despedidak
- ◆ Koadrilako afariak

BEREZITASUNAK



- ◆ Arraia eta haragi erreak
- ◆ Postre bereziak



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



BILLABONAKO
UDALA



JAI EGUN
ZORIONTSUAK
OPA
DIZKIZUEGU